



HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ IKASKUNTZA BERRIKUNTZARAKO ZENTROA ETA HEZKUNTZA INKLUSIOA GARATZEKO ZENTROA SORTZEKO XEDAPEN OROKORRA EGITEKO PROZEDURA ARTXIBATZEN DA.

Hezkuntza Saila izapidetzen hasi zen 2023ko urtarrilean Hezkuntza sistemari laguntzeko egungo zerbitzuak errealitate berriaren eskakizunetara eta hezkuntza-erronka berrietara egokitzeko, ekitatea eta hezkuntza-aniztasunaren eta hezkuntza-inklusioaren erantzuna babestuz.

2023ko urtarrilaren 11n alde zuzeneko kontsulta egin zen, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera. Lege horrek testu artikulatu oso bat osatzen du, lege bakar batean sartuz xedapen orokorrek egiteko prozedurarekin zerikusia duten arau guztiak.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntzako sailburuari ematen zaio espediente modu arrazoituan artxibatze gaitasuna.

Aipatutako aginduak kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak ikusi du dekretu-proiektu hau aurreikusi ez ziren bi aldagaietara egokitu behar dela. Alde batetik, Hezkuntza Sailburuordetzaren administrazio-egitura berria, zeinaren bidez lehengo Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza bi zuzendaritza berri bihurtu baitzen: Hezkuntza Aniztasun eta Inklusiorako Zuzendaritza eta Ikaskuntza eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza. Egitura berri hau Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan jasotzen da:

“2. artikulua.– Egitura orokorra.

Hezkuntza Sailak, bere eskumenak baliatzeko, honako organo hauek izango ditu:

A) Organo zentralak:

1. Hezkuntzako sailburua.
 - 1.1. Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.
2. Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza.
 - 2.1. Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.
 - 2.2. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza.
 - 2.3. Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritza.
 - 2.4. Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza.
3. Hezkuntza Sailburuordetza.
 - 3.1. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza.





- 3.2. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza.
- 3.3. Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.
- 4. Lanbide Heziketako Sailburuordetza.
 - 4.1. Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza.
 - 4.2. Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza.
- 5. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.
 - 5.1. Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza.
 - 5.2. Ikerketa Zuzendaritza.”

Zuzendaritza berri horietako bakoitzak erantzukizun desberdinak izango lituzkeela ikusita zentro berriaren kudeaketan, eta etorkizuneko laguntza-zerbitzuaren definizio antolatzailea eta operatiboa sinplifikatzearen mesedetan, zentro bakoitzaren sorrera arau desberdinetan bereiztea proposatzen da.

Bestalde, adierazi behar da Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa eta Hezkuntza Inklusioa Garatzeko Zentroa sortzea arautzen duen dekretu-proiektua izapidetzean ez zirela lanpostuen zerrenda eta lanpostu-betetzea sartu.

Azkenik, adierazi behar da Hezkuntza Sailak dagozkion izapideak hasiko dituela bi zentro berriak (Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa eta Hezkuntza Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa) sortzen eta zentroko lanpostuen zerrenda onartzen eta betetzen duen dekretuen izapidetzea.

XEDATZEN DUT:

1.– Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroaren eta Hezkuntza Inklusioa Garatzeko Zentroaren sorrera arautzen duen Xedapen Orokorraren prozedura amaitzea eta espediente artxibatzea.

Vitoria-Gasteizen,

Hezkuntzako sailburua,

JOKIN BILDARRATZ SORRON.